



2025EKO AZAROAK 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hogeita zazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

II. 2026 AURREKONTUAK.-

Jarraian 2026. urterako aurrekontua aurkeztu da Osoko Bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek Udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu espedientean jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua ere badago.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordean informatuak izan dira.

Alkateak aurrekontuaren azalpen orokorra egin du. 10.832.500 €koa da. 6,90% hazkundea 2025arekiko. Foru funtsaren gorakoa %9,3koa izango delarik.

Alkateak aurrekontuak solidarioak eta aurrerakoiak direla uste dio, orain arteko sozialenak. Herritarrak kontutan hartzen dituenak eta inbertsioak bultzatzen jarraituko duena.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) azaltzen ditu inbertsioak 1.962.250 € %16 handiago 2025ean baino. Lazkaomendiko bidea eta San Joseko igogailu publikoa aipatzen ditu besteak beste.

Ormazabal zinegotziak dio (EH Bildu) hauteskundeetako emaitzak gogoratu dezagun. Emaitzak gogorarazten ditu. Irakurketa bi alderdien elkarlana eta adostasuna eskatzen dutela. Hasieratik saiatu dira horretan, baina eurak egindako deialdiek ez du erantzunik jaso. Ordenantza Fiskaletan adostasuna izan dute. Hori planteatzen zuen EH Bilduk aurrekontuetarako. Aurten ere EAJk ez duela urte anitzeko jokuan parte hartu nahi izan, 2026ko sarrera eta gastua mugatu nahi izan dutela. Aurrekontuak onartzeko prest daudela 2.000.000 € horiek gainditzin dituzten inbertsioak adostuta egiten badira.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) dio batzordean esan zela kreditu gehigarri bidez beste proiektuen bat egin beharko balitz, inbertsio lehentasunen zerrenda bat pasa zitzaiela zertan inbertituko litzatekeen zehaztuz. Karta guztiak mahai gainean jarri zirela eta proiektu horiekin bat egiten badute gonbidatzen dituztela aurrekontuak onartzea. Inbertsioekin bat badatoz, ez duela ulertzen EH Bilduk aurrekontuak ez onartzea.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio konpromiso hori nahiko luketela, ea prest dauden proiektuak elkarrekin adosteko. Lehenetsiko direnak Lazkaomendiko bidea, zerrendaren arabera.

Bergara zinegotziak (EH Bildu) proiektu berri bat sartzen bada beraiekin adosteko prest gauden galdetzen du.

Alkateak, baietz dio.

Altuna zinegotziak (EAJ-PNV) dio beti egon direla prest proposamenak hartzeko. Botoa horretara baldintzatzeak txantaje usaia hartzen du.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) dio ez ahazteko 2026ko aurrekontuak ari direla onartzen.

Azurmendi zinegotziak (EH Bildu) dio proposatzen ari direna, dena elkarrekin egitea dela, ez EAJk proposatu eta beraiek baiezkota eman.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) dio ezin dela baldintzatu aho batez onartzea zehaztu gabeko proiektu berriak aurrera eramatea.

Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ), 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe. Lazkao Lantzen, S.A. aurrekontuak aho batez onartzen dira. Hau horrela honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenen.- 2026. urterako Udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkarrearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:



2026KO UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.870.116,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	300.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.374.341,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.033.836,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	208.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA-KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	46.060,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €

SARRERAK GUZTIRA 10.832.554,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.947.396,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	6.103.802,42 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	2.065,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	817.000,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.962.290,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	0,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €

GASTUAK GUZTIRA 10.832.254,00 €

2026KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

V	KAPITULUA	ONDARE SARRERAK	16.370,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA	240.477,66 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	172.614,42 €

SARRERAK GUZTIRA 429.462,08 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	13.590,00 €
----	-----------	---------------------------------------	-------------

III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	3.462,08 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	413.410,00 €

<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>429.462,08 €</u>
------------------------------	--	--	---------------------

2026KO UDALAREN AURREKONTU KONTSSOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.870.116,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	300.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.374.341,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.033.836,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	208.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	46.060,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €

<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>10.832.554,00 €</u>
-------------------------------	--	--	------------------------

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.947.396,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	6.103.802,42 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	2.065,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	817.000,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.962.290,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €

<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>10.832.554,00 €</u>
------------------------------	--	--	------------------------

Bigarrenena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.



III. PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.-

Jarraian, Osoko Bilkuran aurkeztu dira bere onarpenerako 2026ko Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aho batez, onartu egin ditu.

IV. 2024-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.-

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen ematea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatzen du, dirulaguntzak ematea ezarri nahi duen edozein administrazio publikok edo bestelako edozein erakundek, aurrez, plan estrategiko batean zehaztu beharko dituela dirulaguntza horiekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikusitako kostuak eta beraien finantzaketa iturriak, eta betiere aurrekontu egonkortasun helburuak betetzearen menpean jarrita.

Udalbatza honek 2024-2027 epealdirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2023ko azaroaren 23ko bilkuran. Honako dokumentu honi aldakuntza batzuk egiteko beharra ikusi zen eta, aurrez Ogasun Batzordea informatua izan ondoren, Osoko Bilkura honetara ekarri da dirulaguntzen plan aldatua bere onarpenerako.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2024-2027 epealdirako dirulaguntzen plan estrategiko honen aldaketa, bere espedientean dagoena, onartzea erabaki du.

V. KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1. FASEKO OBRAREN 33. OBRA EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztatzea (likidazioa) egin dute.

Hogeita hamairugarren obra egiaztatzea LAUREHUN ETA HAMALAU MILA ETA HOGETA ZAZPI EURO eta HIRUROGEITA BAT ZENTIMOKoa (414.027,61 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio abstenituko direla.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.



VI. OSAKIDETZAREN ESKAERA, LAZKOAKO EUSKADI ENPARANTZA SEKO (IKASTOLA PATIOA) OSASUN-ZENTRORAKO BEHIN-BEHINEKO ERAIKIN BAT INSTALATZEKO OBRAK INTERES BEREZIKO OBRATZAT HARTZEKO, ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAN (EIOZ) % 95EKO HOBARIA APLIKATZEARI DAGOKIENEZ.-

Alkateak azalpenak ematen ditu.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio konforme daudela, onura publikoa ikusten die eraikin berriari.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

- Osakidetza eraikuntza instalazio eta obren gaineko zergan (EIOZ) % 95eko hobaria aplikatzea.

VII. ATAUNGO UDALAREKIN HITZARMENA, URBAUNDIRAKO BIDEA KONPONTZEKO.-

Alkateak azalpenak ematen ditu.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENENGOA.- Urbaindirako bidea, bi udalerriak lotzen dituen bidea, konpontzeko lanen kontratazioa izapidetzea da hitzarmen honen xedea. Lan horiek 1.00 m²-ko bidea hormigoizatzeko dira.

BIGARRENA.- Ataungo Udalak kontratazio-espedientea izapidetzeko konpromisoa hartu du, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera.

HIRUGARRENA.- Kontratua sinatzen duten udalek erdi bana finantzatuko dute, %50ean.

LAUGARRENA.- Kontratazio-mahaiak proposamena egin ondoren, Urbaindirako bidea konpontzeko kontratuaren esleipena Ataungo udalak egingo du.

BOSGARRENA.- Ataungo Udalak konpromisoa hartzen du obraren gauzatzea kontrolatzeko eta kontratuaren faktura ordaintzeko.

SEIGARRENA.- Ziurtagiria eman ondoren, Lazkaoko Udalari jakinaraziko zaio, kontratistak faktura aurkeztu ondoren, dagoion zenbatekoa ordain dezan 15 eguneko epean.

ZAPIGARRENA.- Hitzarmen honekin batera doaz udal bakoitzaren udal eskuhartzeak egindako txostenak. Txosten horietan, aurrekontu-kreditua badagoela egiaztatzen da, gehienez ere honako kopuru hauetara arte: 20.000 € udal bakoitzak.



VIII. BAKE EPAILEA IZENDATZEA.-

Alkateak azalpenak ematen ditu.

Alkateak Iker Imaz Beldarrain-i, orain arte Bake Epaille bezala izan denari, eskerrak ematen dio. Egokia dela aldaketa osasuntsua delako.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio bat datoz Iker-i eskerrak ematearekin. Alternantziarekin ados. Irizpideekin ez datoz bat. Emakumea izatea eta adina baloratzen dute. Ez dute ezer diotenaren kontra, beraz.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Bake Epaille titularra, Manex Osés Bueno
- Bake Epaille ordezkoa, Nekane Auzmendi Mendiola

IX. EAJ ETA EH BILDUK AURKEZTUTAKO EUSKARAREN NAZIOARTEK EGUNAREN INGURUKO ADIERAZPENA.-

Naldaiz (EAJ-PNV) eta Ormazabal (EH Bildu) zinegotzien artean, irakurri dute:

Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN

"ABENDUAK 3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025

ADIERAZPENA

Euskarak bide luzea egin du.

Luzeena, agian, Europa zaharrean. ✓

Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau, hazi eta berritzen ari da.

Zein da sekretua?

Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?

Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.

Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.

Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.

Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.

Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.

Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.

Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.

Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.

Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

Horregatik, unea da.

Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorratzeko unea.

Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea.

Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.

Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.

Erabilera sustatuko duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.

Euskararen biziberritze-prozesuari segurtasuna emateko indarrak biltzeko eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.

Eta prest gaude!

Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.

Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei.

Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.

Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,

Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!

Guztiontzat da.

Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.

Batzen gaituen hizkuntza bat.

Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.

Eta euskararekin, edonori.

Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.

Hazi emankorrakoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurea nola dantzatu.

Norberetik hasita egingo dugu bidea.

Guztion baitan baitago euskararen jauzia.

Zugan, nigan, gugan."

Alkateak dio zaindu, elikatu eta piztu dezagun euskara.

Hau ikusirik, Osoko Bilkurak aho batez adierazpena onartu du.

X. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.



XI. - BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

